

Gaitasunen ebaluazioa

4.gaia

Irakurri eta ebatzi.

. Ikerrek 120 cm luze eta 80 cm zabal den zurezko taula bat ahalik eta lauki handienetan zatitu nahi du, zatirik sobera utzi gabe.



- Zenbat zentimetrokoa izan behar du lauki bakoitzaren aldeak?
- Zer azalera du ebaki behar duen zurezko taulak? Eta lauki bakoitzak?
- Zenbat lauki aterako ditu Ikerrek zurezko taulatik?

Ebatzi.

• Ikerrek panel karratuak jasotzen ditu 8 egunetik behin; panel laukizuzenak, 10 egunetik behin; eta panel biribilak, 12 egunetik behin. Gaur hiru motetakoak jaso ditu. Zenbat egun pasatuko dira, gutxienez, berriro ere hiru motetako panelak jasotzeko?

EMAITZA:

• Ikerrek, lantegian, 30 torloju gorri, 18 torloju urdin eta 20 torloju berde ditu. Torloju guztiak tiraderatan jarri nahi ditu, kolore bereko torloju kopuruak jarritz, ahalik eta gehien izanda eta bakar bat ere sobera geratu gabe. Zenbat torloju jarri behar ditu tiradera bakoitzean?

EMAITZA:

• Ikerrek 75 kg bernizeko bidoi bat eta 60 kg-ko beste bat jaso ditu. Ontzi txikiagotan sartu nahi du berniza, ontzi bakoitzean ahalik kantitate handiena jarritz, ontzi guztiek pisu bera izateko moduan eta bernizik sobera utzi gabe. Zenbat kilo berniz jarriko ditu bakoitzean?

EMAITZA:

• Makina batek seinale bat egiten du 15 minututik behin, beste batek, 25 minututik behin, eta hirugarren batek, 40 minututik behin. Goizeko 10etan hiru makinek egin dute seinalea. Zenbat minutu pasatuko dira, gutxienez, berriro ere hiru makinek batera seinalea egiteko? Zer ordu izango da?

EMAITZA:

